

# Cat Boyd, Radical Independence kanpainako bozeramailea: “INDEPENDENTZIA KLASE-AFERA DA ETA GENEROA KLASEAREN ERDIGUNEAN DAGO”

Eskozia independentea nahi du, dena aldatzeko, feminismoa, sozialismoa eta anti-inperialismoa oinarri. Liburu batean bildu ditu independentziaren aldeko argudio feministak, Jenni Morrisonekin batera. Iragan urrian Alternatiben Herrian izan zen, eta mahai-inguru arrakastatsuen biharamunean jardun genuen berarekin.



Danele Sarriugarte

@daneleSM

ARGAZKIAK: IRANTZU PASTOR

## Nola abiatu zen Radical Independence?

Hasteko, Eskoziako Parlamentua ez zuten diseinatu gehiengo nazionalista batek gobernatzeko, ezpada koalizio batek agintzeko. 2011n, nazionalistek gehien-goia lortu zutenean, orduantxe konturatu ginen erreferenduma izango genuela. Erakunde sozialista iraultzaileetan ibilitako hamar lagun inguru bildu eta kanpaina bat abiatzea erabaki genuen, zeinaren ardatzak ez baitziren izango SNP alderdia, nazionalismoa, eskoziar identitatea... Aitzitik, klasea jarri nahi genuen erdigunean, ikuspegi anti-inperialistatik abiatuta.

## Nola ekin zenioten kanpainari?

Ezker tradizionalako erakunde britainiarrek uste dute langile guztiek batu-ta irau behar dutela. Aldiz, Eskoziako



talde sozialistak, ezker erradikalekoak, independentziaren alde daude. Gure asmoa zen eztabaida irabaztea eta independentziari buruzko diskurtso berri bat sortzea. Argi utzi nahi genuen independentzia ez dela Eskoziako bandera soilik, gure prozesua nazioarteko mugimendu zabalago baten parte dela, eta estatu britainiarra haustea ezinbestean dela ekintza progresista bat.

## Atez ateko kanpaina egin zenuten, Yes kanpaina ofizialetik aparte.

SNPre kanpaina zen hori. Beren ideia nagusia honako hau zen: independentzia bozkatu, denak berdin jarrai dezan. Guk geure gidoi propioa idatzi genuen. Monetaz galdetzen zigitenean, zera esaten genuen: liberari euts diezaiokegu, baina gure moneta propioa ere izan

dezakegu. Guretzat, kanpaina egitea aukera bat zen jendearekin hitz egiteko. Benetan desio genuen jendeak prozesu demokratikoan parte har zezan.

## Zer ikasi duzue prozesuari esker?

Bi urteko epea geneukan biztanleen erdia baino gehiago konbentzitzeko. Beraz, presio eta presa handia sentituen, eta gauza batzuetan huts egin genuen. Kanpainaren ostean zenbait lezio ikasi genuen, barne-demokraziari eta ardurei buruz. Era berean, ikasi genuen beharrezkoa dela korrante feminista indartsua edukitzea. Kanpora begira, ikusi dugu SNP oso erakunde boteretsua dela. Erreferendumaren aurretik 25.000 kide zituzten, eta orain, aldiz, 110.000. Gauza ona izango litzateke RI alderdi politiko bilakatzea, SNPra isuri hori geldia-



Ehunka lagunuen aurrean hitzaldia eman zuen Bilboko Alternatiben Herrian, EHUKo irakasle Mario Zubiagarekin eta CUPEko David Fernandezekin batera.

razteko. Baina alderdi askotako jendeak osatzen du RI, eta horregatik abiatu dugu alderdi berri bat, RISE.

**Jenni Morrisonen eta biek idatzitako liburuan dioenez, emakumeek inork baino gehiago irabaziko lukete independentziarekin, baina, gertagarriena zen gehienek aurka bozkatzeari.**

Yes kanpainak ez zuen genero-ardatza txertatu, eta, nire ustez, horregatik galdu genuen erreferenduma, besteak beste. Emakumeei ez zieten ezer eskaini, eta kanpainako hitzaldietan, emakumeen batek galdetzen bazuen ea zergatik eman behar zuen independentziaren aldeko botoa, zera erantzuten zioten: "doako haurtzaintza-zerbitzua emango dugu". Emakumeen arazo bakarra balitz bezala, emakume guztiena, eta emakumeena soilik.

**Zer lotura potentzial daude independentziaren eta feminismoaren artean?**

Britainia Handia estatu erreakzionario, arkaiko eta patriarkala da, bere egitura guztiek inperialismoa eta neoliberalismoa dute ardatz. Ideologia britainiar horrek, espezifikoki, emakumeak baztertzen ditu, sexismo instituzionalaren bidez: dirua arma nuklearretan inbertituz eta ez hezkuntza edo osasungintzan, bortxatutako andreak artatzeko zentroentzako laguntzak murriztuz...

» **Estatu britainiarra haustea ekintza progresista da, ezinbestean**

» **Erreferenduma galdu genuen, besteak beste, Yes kanpainak ez zuelako aintzat hartu genero-ardatza**

» **Eskoizian zerbait ikusgarria gertatu da, mila puskatan hautsi da politika zaharkitua, eta erreferendumari esker norbere burua politikoki hezteko sekulako prozesua gertatu da**

Aldi berean, feminismoaren ekarpen batzuk lapurtu dituzte, esanez emakume enpresaburu asko dauzkatela, emakume bat izan zutela lehen ministro... Aurpegia garbitzeko baizik ez dute egin, kontua ez baita emakumeentzako xendra bat eraikitzea instituzio patriarkal horien barruan. Osorik hautsi behar dira, estatu britainiarra eta britainiartasuna eta instituzioak, lur emankor berria behar dugu emakumeen askapena loratzeko. Ez da perfektua izango, baina independentziak aukera ematen digu borroka feminista toki askoz garrantzitsuagoan ipintzeko.

**Klasearekin ere lotu duzue, noski.**

*Britain is for the rich, Scotland can be ours* [Britainia aberatsena da, Eskozia gurea izan daiteke] biltzarrean, independentzia klase-aferra dela adierazi genuen, eta aberatsek ezetz bozkatu zuten. Badago joera bat, klasea eta generoa bereizteko: "klase-aferra da, beraz generoak ez du axola". Aitzitik, Jennik eta biok bestelako diskurtso bat sortu nahi genuen: independentzia klase-aferra da, baina generoa klasearen erdigunean dago. Gainera, akordio neoliberalaren kasuan, kapitalismo mota oso zehatz bati buruz ari gara, eta horren oinarrian emakumeen esplotazioa dago, aurreko ezin sistematan baino bortitza.

**Atal oso bat eskaini diozue segurtasunari.**

Liburuan erakutsi nahi izan dugu Trident-eko base militarra dela estatu britainiarraren sexismoaren ikur gorena. Glasgow-tik 40 minutura dago eta arma nuklearrak gordetzen dituzte. Orain gutxi lege bat aurkeztu dute basea eta armak berritzeko: milaka milioi libera xahutuko dituzte, aldi berean emakumeei kalte egiten dieten murrizketa ekonomikoak onartzen dituztelarik. Horra hor, sexismo instituzionalizatua. Britainiak kanpo-mehatxuen diskurtsoa elikatzen du, baina etxean gerra ekonomikoa ari da jokatzeko, emakumeen aurka. Andreon segurtasuna bermatzeko bestelako neurriak proposatu ditugu guk: lan prekarioa ilegalizatzea, gutxieneko soldata ezartzea...

**Ordezkaritza politikoaren harira ere egin duzue proposamenik.**

Ganbera bikoitzaren aukera proposatu dugu, Emakumeen Parlamentua. Westminsterren bezala, independentziaren ostean guk ere bi parlamentu nahi ge-

nituzke, bata arrunta eta bestea emakumeena. Komunitateek hautatutako andreek osatuko lukete, eta Eskoziako Parlamentuak erabaki nahi duen legegia oro pasa beharko litzateke bertatik. Beto-eskubidea edukiko luke, emakumei eragiten dieten gauzen gainean, alegia, guztiaren gainean: osasuna, hezkuntza... Horrela, emakumeak politikoki heziko lirateke eta errotik aldatuko litzateke erabakiguneetako ohiko jarrera maskulinoa, emakumeak edukiko genituzkeelako erdi-erdian, herrialdeari buruzko erabakiak hartzen.

**Aurrera begira jarrita, alderdi politiko bat sortu berri da, RISE. Zer dela-eta?**

Gure helburua da sozialistak atzera ere Parlamentura itzultzea. Biziki garrantzitsua da independentziaren kausarako. *Yes* kanpaina oso anitza izan da: kanpaina ofiziala, RI, sindikatuak... Ahots horiei guztiei esker lortu genuen %45a, baina uste dugu Parlamentuan ere islatu behar dela aniztasun hori, jendeak garbi izan dezan independenteak izan gaitzkeela, eta ez duela zertan SNPren eskutik izan.

**Zer toki izango du feminismoak RISEn?**

Jenik eta biok liburua argitaratu genuenean hitzaldi pila bat egin genituen, eta batez ere emakume gazteak etorri ziren. Nire iritziz, feminismoaren laugarren olatua iristear da, eta konturatu naiz gero eta emakume gazte gehiago ari direla feminista gisa identifikatzen. Orain arte, Eskoziako kale eta erakundeetan ez da tokirik izan feminismoa lehentasuntzat duten emakumeentzat, eta etxe hori sortzen ari gara, feministak izan daitezten hasteko, independentziaren aldekoak, sozialistak... Emakumeak nahi ditugu erakundearen buru.

**Nola ikusten duzu datorrena?**

Normalean, nahiko ezkorra naiz. Hala ere, Eskozian zerbait ikusgarria gertatu da, mila puskatan hautsi da politika zaharkitua, eta erreferendumari esker norbere burua politikoki hezteko sekulako prozesua gertatu da. Ez dut erronka gutxienesten, badakit zaila eta anbiziotsua dela, baina, nolabait ere, Pandoraren kaxa ireki da: ideia berriak daude, jendea gauzak egiten... itxaropentsua naiz. ■

**VITORIA GASTEIZ**  
green capital

# ABENDUAK 3 EUSKARAREN EGUNA

## Hamaika jarduera bete euskara Gasteizen

**AZAROAK 27, 18:00**

**FAMILIA MINTZODROMOA**  
Zabalgana eskola. Gurasoak berbetan eta umeentzako lantegiak. Bertso triki-poteoa (Irati Anda eta Ruben Sánchez)

**ABENDUAK 2**

**10:00 MINTZO-TXIODROMOA**  
Gasteizko hainbat zentrotako ikasleek hezkuntza, lan mundua, euskara, aisialdia eta kultura izango dituzte mintzagai Oihaneder Euskararen Etxea, ur biltegia

18:45 EUSKALTZALEON DESIREN ZUHAITZA

Euskaltzale guztiok desio eta nahiak jarri ahal izango dugu zuhaitzean zintzilik Oihaneder Euskararen Etxeko klaustroan

**AZAROAK 27, 18:30**  
**AZAROAK 28, 10:00-19:45**

**GAZTE GOZATOPA**  
Sexuan, harremanetan, emozioetan, aereoetan, sorkuntzan... euskaraz bizi-bizi gozatu! Aisialdia eta euskara gustuko duten 16 urtetik gorakoentzat

**12:30 ZERGATIK EZ? LANTEGIA**

Euskararen erabilera soziala bultzatzeko tailerra. Unibertsitate pabilioiko kafetegian lizen-ematea: [www.ehu.eus/ehuskarabanda](http://www.ehu.eus/ehuskarabanda)

19:00 EUSKARAK 365 EGUN

Oihaneder Euskararen Etxetik Andre Maria Zuriaren plazarako kalejira. Kandelen ibilbidea

**AZAROAK 29, 12:00 eta 17:30**

**AMALUR - PIRRIK, PORROTX ETA MARIMOTOTS**  
Buesa Arena  
Sarrerak salgai: AEK (Aixkiria, Zadorra, Arana) eta [www.katziporreta.eus](http://www.katziporreta.eus)

**ABENDUAK 3**

**10:30 EUSKARAREN GINKANA GASTEIZEN [Finala]**  
Gasteizko hainbat zentrotako ikasleek finala jokatuko dute. Oihaneder Euskararen Etxea, ur biltegia

20:00 ZIRK-ZARK

Arabar euskaldunon zirko emanaldia Oihaneder Euskararen Etxea, ur biltegia. Gonbidapenak: Oihaneder Euskararen Etxean

**ABENDUAK 1, 20:00**

**AMAMA filma**  
Florida zinemak  
Gonbidapenak: Oihaneder Euskararen Etxea

**ABENDUAK 4**

**LAU TOPET. ABESTI BAT GUTXIAGO**  
19:00etan. Jimmy Jazz aretoan  
Liburu-diskoaren aurkezpena Harkaitz Cano + Oier Arazanbal  
21:30ean. Lau Topet. Kontzertua  
Gonbidapenak: Hor dago! eta Oihaneder Euskararen Etxea.

Gasteiz bete euskara egunero